


TXOSTEN EXEKUTIBOA



HERRITARREN
PARTAIDETZA

AURREKONTU IREKIAK 2020

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa



Txosten honek Gipuzkoako Foru Aldundia 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan aurrera eramaten ari den “**2020 Aurrekontu Irekiak**” partaidetza prozesuaren emaitzak jasotzen ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa gidatzen duen gobernantza irekiaren eta kolaboratiboaren eredian oinarrituta, **2019ko martxoaren 1etik abenduaren 27ra** bitartean, 2020 Aurrekontu Irekiak partaidetza prozesua egiten ari da, hain zuzen ere Kudeaketa Plan Estrategikoaren lehentasunezko bost helburuetako bat baita hauxe.

Gipuzkoako gizartea lurralde historikoarentzako jarduketa ildoen eta proiektu estrategikoen kudeaketaren partaide bihurtzeak berekin dakar foru erakundearen eta herritarren arteko komunikazio eredu bat definitzea, gertutasuna, ezagutza eta gardentasuna sortzea. Hori gauzatzeko, PDCA metodologia (Plan-Do-Check-Act/Planifikatu-Egin-Egiaztatu-Ekin) jarraitzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia Horren barruan, prozesuaren **lehen fasea** amaitzera dator txosten hau, eta 2020 ekitaldirako aurrekontu ireki eta parte hartzaileak egiteko aukera emango digu.

Hurrengo orrialdeetan aletzen dira partaidetza prozesuaren mugarriak, baita lortutako emaitzak ere. Horretarako, lehenik eta behin, “2020 Aurrekontu Irekiak” partaidetza prozesuaren **testuingurua** aztertuko da. Bigarrenik, prozesuaren analisia gidatu duen **metodologia** azalduko da, eta bertan dago horren fitxa teknikoa. Hirugarrenik, lortutako **emaitzak** erakutsiko dira, egindako galderen arabera. Azkenik, **ondorio** batzuk aterako ditugu, eta Aldundiak Gipuzkoan partaidetzako kultura eta gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredu berri bat finkatzeko hartuko dituen **konpromisoak** zehaztuko ditugu.

Txosten honetan jasotako partaidetza prozesuaren emaitzek ikerketa sozial eta estatistikoaren kalitate estandarrei jarraitu diete, eta emaitzen egiazkotasuna eta fidagarritasuna bermatzen dute. Horrez gain, datuak zorrotz zaindu dira eta anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuta egon da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eta 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, agintzen dutena betez.



AURKIBIDEA

SARRERA, **4. or.**

1. PARTAIDETZA TESTUINGURUAN: GIPUZKOA ETA AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK 2020, **7. or.**

1.1. PARTAIDETZAKO KULTURA, GIPUZKOAREN NORTASUN ZEINU, **7. or.**

1.2. ZEIN IZAN DA PARTAIDETZA PROZESUAREN EGUTEGIA? **11. or.**

1.3. PROZESUA SOZIALIZATZEKO BIDEAK, **13. or.**

*1.3.1 Hedabideetako eta sare sozialetako zabalkundea, **13. or.***

*1.3.2. Galdetegiak eta esku orri informatiboak postontzietan sartzea, frankeo ordainduarekin **13. or.***

*1.3.3. Partaidetza birtuala, **15. or.***

*1.3.4. Topaketak entitateekin, elkarteekin eta udal txikiekin, **15. or.***

1.4. ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?, **17. or.**

1.5. ZEIN BERRIKUNTZA DAKAR PARTAIDETZA PROZESU HORREK?, **18. or.**

2. METODOLOGIA, **19. or.**

2.1. PARTAIDETZA MAILAREN ANALISIA, **19. or.**

2.2. EKARPEN IREKIEN ANALISIA, **19. or.**

2.3. FITXA TEKNIKOAK, **20. or.**

3. EMAITZAK, **21. or.**

3.1. PARTAIDETZAREN EMAITZAK, **21. or.**

*3.1.1. Partaidetza generoaren arabera, **21. or.***

*3.1.2. Partaidetza adinaren arabera, **22. or.***

*3.1.3. Jasotako ekarpen kopurua, **22. or.***

*3.1.4. Hautatutako partaidetza bideak, **23. or.***

3.2. PARTAIDETZA PROZESUAREN EMAITZAK, **24. or.**

4. ONDORIOAK, **41. or.**

5. GIPUZKOAREKIN DUGUN KONPROMISOA, **44. or.**



0. SARRERA

Aurreko ekitaldietan jorratutakoaren ildoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak laugarren urtez finkatu du bere gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredia Aurrekontu Irekiak abian jarritz. Horrela, gai horren inguruan erreferentziazko erakunde moduan finkatu du bere burua.

Gaur, inoiz baino gehiago, funtsezkoa da lan egitea herritar guztientzako etorkizun komuna eraikitzeko, kontuan hartuta gero eta gehiago eskatzen duela herritarren zeregina lehen planora ekarriko duen eredu berri bat. Gobernantza ereduaren aldaketa horrek berekin dakar herritarren partaidetza finkatzea lurralde historikoaren aurrerapen eta etorkizuneko aldaketa tresna moduan.

Urratsez urrats, “Gobernantza Onaren gobernatzeko eta jarduteko moduak Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasun zeinu bihurtzeko” helburu garbiarekin, modu proaktiboan egin da aurrera etapa honetan ere, eta 2015-2019 aldirako aurreikusitako Gobernantza Onaren Estrategia finkatu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoak gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredia proposatzen du, pertsonengan etea honako hauetan oinarritutakoa:

- ☞ Eraldaketarako **lidergoa**, gainerako erakundeekin eta gizarte antolatuarekin partekatua.
- ☞ Esparru publikoaren eta pribatuaren **elkarlana** proiektu estrategiko berriak bultzatzeko.
- ☞ Etengabeko **elkar eragina eta eztabaida** herritarrekin eta lurraldeko gainerako eragile ekonomiko eta sozialekin.
- ☞ Foru Aldundiko talde politikoaren eta teknikoaren **partaidetza aktibo** eta protagonista gobernu ekintzaren lehentasunen jarraipena egiteko eta horiek ebaluatzeko zorrotasun, erantzukizun eta gardentasun irizpideetatik..

Aurrekontu Irekien ekimenak herri bokazioa du. Euskadiko Toki Erakundeek Lege berriak jarraitu beharreko jarraibideak ezartzen ditu, eta bertan ezartzen dira Euskadin partaidetzak eta gobernantza berriak izan beharreko arauak. Gipuzkoak aurrera egiten du ildo horretan, eta herritarrekiko lotura estutzen ari da. Partaidetzarako eta komunikaziorako bide berriak ireki dira, eta apustua egin da foru erakundearen lan



metodoak eta kudeaketa sistemak hobetzeko eta modernizatzeko, herritarrak eta eragile eta ekintzaile sozialak sartuz politika publikoen eztabaidan eta garapenean.

5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, 26. artikuluan, aurrekontuak egitean herritarren partaidetza prozesuak arautzen dituenak, honako hau ezartzen du:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenen esparruan, herritarren partaidetza prozesuak ezarriko ditu, esate baterako, aurrekontu parte hartzaileak, laguntzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren alderdi jakin batzuen lehentasunak ezartzen, herritarren partaidetza maila areagotzeko eta hobetzeko.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Jarraibide Orokorrak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, ezarriko du gastuen zein ehuneko edo zenbateko erreserbatuko den aurrekontu parte hartzaileen bidez zehazteko.
3. Herritarren partaidetza prozesuak, aurreko apartatuari dagokionez, arauz garatuko dira titulu honen lehen kapituluan ezarritako printzipioei eta prozedurei jarraituz, oztoporik eragin gabe Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontua egiteko prozeduraren inguruko berezitasunei. Edozein kasutan, behar besteko aurrerapenaz egin beharko dira, partaidetza prozesuaren emaitzak integratu ahal izateko dagokion aurrekontuen inguruko foru araua izapidetzean.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuko du aurrekontu parte hartzaileen prozesuak sustatzea eta hedatzea, unibertsaltasun eta autoarautze printzipioetan oinarrituta, ekintza irekien, informazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, horietan herritarren partaidetza sustatzeko eta errazteko helburuarekin.

Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan txertatzeak lagundu egiten du konfiantza sortzen, gobernuak indartzen dituelako, politika publikoak legitimatzen dituelako, pluraltasun soziala integratzen duelako, interes sozialak agenda publikoan txertatzen laguntzen duelako, herritarrak sartzen dituelako bizitza publikoa antolatzeko prozesuetan eta gizarte zibilaren funtzioa indartzen duelako.

Azken finean, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurre egingo dio erronkari, Gipuzkoako Foru Aldundi moderno, eraginkor, gertuko eta umil bat, printzipio moduan akordioak bilatzea, lidergo partekatua, austeritatea, Gobernantza Ona eta entzuteko gaitasuna izango dituenak, eta jorratu eta planeatu beharreko lehentasunak identifikatu eta irtenbide



eraginkorrak emango dituen abian jartzeko eta finkatzeko. Garai berri bat, zuhertasunez eta tinko aurre egiteko lurraldearen modernizaziorako sortzen diren erronka estrategiko garrantzitsuei, elkarrekin lan egiteko Gipuzkoaren etorkizunerako proiektu zirrargarri bat eraikitzen, garapen, elkartasun, kohesio, elkarlan, erantzukizun eta ongizate printzipioetan oinarrituta.




1. PARTAIDETZA TESTUINGURUAN: GIPUZKOA ETA AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK 2020

1.1. PARTAIDETZAKO KULTURA, GIPUZKOAREN NORTASUN ZEINU

Laugarren urtez segidan, eta aurreko ekitaldietako partaidetza prozesuek izandako arrakastaren ondoren, herritarren partaidetza nabarmen areagotu da, eta horrek ezagutza handiagoa ekarri du, eta herritarrek kudeaketa administratiboaren eredu berriaren kontzeptua asimilatu eta barneratu dute. **Aurreko ekitaldian, aurrekontu irekien prozesuan 13.267 ekarpen jaso ziren hainbat bidetatik, 2017an egindako prozesuan baino % 42 gehiago.**

Kanpainaren arrakastak, aurreko ekitaldiekin alderatuta partaidetzaren igoera nabarmenean oinarritutakoak, emaitzen balioa aitortzeaz gain, prozesuaren beraren balioa aitortzea dakar. Prozesu horren helburua da gobernantza irekiaren kolaboratiboaren eredu finkatzea.

Herritarrekiko harreman irekia finkatzeko eta partaidetza eta komunikazio bide berriak irekitzeko helburuarekin, lau ardatz ezarri dira, lurraldearen partaidetza finkatzeko ekintzak, ekimenak eta prozesuak egiteko xedea dutenak.



- Partaidetzako kultura **SENDOTZEKO** ekintzak, gehienbat partaidetzarako organoak sortzean eta aktibatzean oinarrituak.



- Partaidetzako kultura **ZABALTZEKO** Aldundiko departamentuak partaidetza prozesuen garapenean sartzeko apustu batekin.
- Partaidetzako kultura **ERRAZTEKO** herritarrei partaidetza ezagutzeko eta praktikatzeko tresnak eskura jarritz.
- Partaidetzako kultura **HEDATZEKO**, jarduerak bitarteko telematikoen eta aurrez aurrekoen bidez hedatzeko ekimen multzo bat.

Lurralde historikoaren eredu aldaketak zuzenean eta modu gardenean sartzen ditu herritarrak, eta oinarri horretan oinarritzen da herritarrentzako irekitako foru aurrekontuak egiteko prozesuaren aplikazio.

Horri dagokionez, herritarren partaidetzatik eratorritako aukerak eta abantailak ugariak dira, eta lagundu egiten dute foru aldundi modernoagoa, eraginkorragoa, gardenagoa eta, gehienbat, herritarrengandik gertu dagoen bat sortzen. Beraz, aurrekoen uberan dagoen prozesu bat da, honako helburu hauek dituen::

- ▲ Herritarrak **KONEKTATZEA** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, haren lana eta kudeaketa ezagutaraziz.
- ▲ **EZAGUTZEA** gure bizilagunen lehentasunak eta beharrak, eta guztion egiazko eskariekin bat datozen irtenbideak eskaintzea.
- ▲ Gizartearen protagonismo aktiboa **SUSTATZEA** Gipuzkoako egunerokotasunean, herritarrak lurraldeko bizitza publikoan ikusle huts izan ez daitezen.
- ▲ **FINKATZEA** Foru Aldundi eraginkor, arrazional, eraginkor eta gardena bermatzea kudeaketa publikoan, herritar ahaldunduekin.
- ▲ Hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako **BIDEAK IREKITZEA** herritarren eta Foru Aldundiaren arteko elkarrizketa eta komunikazioa hobetzen lagunduko dutenak.
- ▲ **ONARTZEA** aurrekontu ireki batzuk, herritarrekin, ordezkari politikoekin eta langile teknikoekin kontrastatutakoak.

Ekitaldi honetan hainbat hauteskunde egingo direnez eta legegintzaldi honen amaiera denez, aurrekontu irekien prozesuari eragin egingo dio, proposamenak jasotzeko epeei dagokionez, datetan dauden mugak tarteko. Dena dela, horregatik ez dira bertan behera utzi nahi izan, eta prozesua gizartearen finkatzen eta onarpena lortzen ari den prozesu bat



izateaz gain, Herritarren Partaidetzarako Foru Arau berriak, orain gutxi Batzar Orokorretan onartutakoak, ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak egitean herritarren partaidetza prozesu bat egin behar dela.

Kontuan hartuta 2020 Aurrekontu Ireki hauen prozesu berriaren testuingurua zein den, Gipuzkoako Foru Aldundiak eredu parte hartzaile bat finkatu nahi izan du, aurrekontu irekiak egiteari lotutakoa, **protokolo** bat diseinatzuz, eta bertan ezarriz prozesuaren garapenaren oinarriak. Horren inguruan ere herri galdeketa bat egin zen, eta gero onartu zen (GAO).

Horrela, aurtengo prozesua ezberdina da aurreko urteetan egindakoekin, bai forman eta funtsean, prozesuan bertan, herritarrentzako kontsulten eta erantzunen bi faseak bereizten direlako, eta epe txikiagoetan egiten delako:



1go fasea: **Partaidetza**. Herritarren proposamenak jasotzea hainbat bideren bitartez, eta horiek aztertzea, gero proiektu bihurtu ahal izateko. Hurrengo fasean egiteko herritarrek aukeratuko dituzten proiektuak.

2. fasea: **Proiektuak aukeratzea**. Herritarrek lehen fasean egindako ekarpenetatik, aurretik ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuak identifikatuko dira. Proiektuen zerrenda hori gutxienez hiru eta gehienez sei proiektuk osatuko dute aurreikusitako 6 kategorietako bakoitzean:

1. Ekonomia sustapena.
2. Gizarte politikak.



3. Garraioa eta bide azpiegiturak.
4. Ingurumena eta Lurralde Oreka.
5. Kultura, Kirolak eta Gazteria.
6. Zeharkako gaiak/Beste gai batzuk.

Gero, herritarren partaidetzaren mendean utziko da hasieran aurreikusitako kategoria bakoitzeko proiektu bat aukeratzea, eta horretarako hainbat bide jarriko dira eskuragarri.



1.2. ZEIN IZAN DA PARTAIDETZA PROZESUAREN EGUTEGIA?

2019ko urtarrilean, Herritarren Partaidetzako Foru Zuzendaritza lanean hasi zen 2020 ekitaldiko Aurrekontu Irekien prozesua abian jartzeko. Planifikazio, kudeaketa, zehaztapen, ekimenaren sozializazio eta koordinazio maila handia behar du proiektu honek, aplikatzeko lurraldearen tamaina dela eta.

Partaidetza prozesurako aurreikusitako egutegiak honako fase hauek ditu:



Gipuzkoako Foru Aldundiak ekitaldi honetan ere nahikoa irizpide izango ditu foru aurrekontuen inguruan Gipuzkoako herritarrek duten ikuspegia kontrastatzeko.

2020 Aurrekontu Irekiak partaidetza prozesu landu eta berme emaile baten ondoren egikarrituko dira. Barruan hartzen dute herritarrekin komunikatzeko eta publizitate aktiboko estrategia berri bat, baita epe batzuk ezartzea ere, lurralde historikoaren beharretara egokitzen direnak. Horrez gain, prozesuak osorik eta koherentzia eta gardentasun handiagoz erantzuten die herritarren arretarako eta partaidetzarako aurrez aurre eta bitarteko digitalen bidez proposatutako ekimenei.



Halaber, nabarmena da interesa sortzen duten eta Gipuzkoako biztanleen eguneroko bizitzari eragiten dieten proiektuen aplikazioa, egiazko beharretara egokitzen den metodologiaren mailakako egokitzapena eta herritarren partaidetzari eta ahalduntzeari lotutako hobekuntza irizpideak formulatzea.



1.3. PROZESUA SOZIALIZATZEKO BIDEAK

Komunikazio estrategia honako bide hauen bitartez egituratu da, prozesuaren zabalkundea, hedapena eta sozializazioa bermatzeko:

- ☑ **Hedabideetako eta sare sozialetako zabalkundea**
- ☑ **Galdetegia postontzietan sartzea, frankeo ordainduarekin.**
- ☑ **Partaidetza birtuala**
- ☑ **Topaketa tematikoak entitate eta elkarteekin (Topaketak)**

1.3.1. HEDABIDEETAKO ETA SARE SOZIALETAKO ZABALKUNDEA

Aurrekontu irekien prozesua prentsaurreko batean aurkeztu zuen Imanol Lasak, Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuak. Prentsaurreko horretan, prozesuaren inguruko xehetasunak eman ziren:

- ☑ nola parte hartu eta zer galdetu.
- ☑ Lurralde historiko osoan 290.000 galdetegi banatu ziren.
- ☑ Edizio honetarako hainbat berri.

Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuak, Herritarren Partaidetzako Foru Zuzendaritzaren bidez, apustua egin du prozesua aktiboki sozializatzeko, ekimena prentsan, irratian eta sare sozialetan zabalduz.

1.3.2. GALDETEGIAK ETA ESKU ORRI INFORMATIBOAK POSTONTZIE TAN SARTZEA, FRANKEO ORDAINDUAREKIN

290.000 galdetegi banatu dira Gipuzkoako etxe guztietarako. Esku orri horietan jasota dago prozesuan parte hartzeko beharrezko informazioa, baita 2019ko foru aurrekontuen partaidetza prozesuan erdietsitako emaitzen laburpen txiki bat ere.



1.3.3. PARTAIDETZA BIRTUALA

Partaidetzarako aurrez aurreko bideen osagarri modura, aurreko edizioetan bezala, webgune bat gaitu da: <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza/>. Bertan daude galdetegia eta prozesuaren informazio gehiago. Kontuan hartuta tresna teknologiko eta birtualek gure gizartearen egunerokotasunean duten garrantzia, ukaezina da partaidetzarako sarbidea eman behar dela teknologia berrien bidez, aukera ematen baitigute arin, erraz eta argi informatzeko eta parte hartzeko.

1.3.4. TOPAKETAK ENTITATEEKIN, ELKARTEEKIN ETA UDAL TXIKIEKIN

Kontuan hartuta aurreko prozesuak izan zuen harrera, bigarren urtez 2020 Aurrekontu Irekien partaidetza ekimenaren sozializazioa amitu da proiektua aurkezten eta entitateekin, erakunde sozialekin, askotariko taldeekin eta udal txikiekin *Topaketak* ekimenaren bidez egindako elkarrizketa zuzenarekin.

Ordezkarri sozialak eta elkarteek ehundura eragile gakoak dira gure gizartean, bai dituzten ezagutzengatik bai transmititzen duten ikuspegi kolektiboagatik. Hori dela eta, Imanol Lasa Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak eta Joseba Muxika Herritarren Partaidetzako zuzendariak egutegi bat egin zuten hainbat eragile zibilekin eta udal txikietako ordezkari politikoekin bilerak egiteko, haien ahotsa entzuteko, parte hartzera gonbidatzeko eta haien ekarpenak 2020 Aurrekontu Irekiak partaidetza ekimenean integratzeko.

Ikastetxeetan egindako topaketei dagokienez, aurreko esperientziak kontuan hartuta, nabarmendu da zein garrantzitsua den gizarteko gazteenei sozializatzea eta haiei informazioa ematea..

Guztira, **12 topaketa egin dira hainbat elkarterekin, entitaterekin eta herritarrekin**. Guztira 450 pertsona bertaratu dira. Jarraian, 2020 Aurrekontu Irekiak kanpainan izandako topaketen zerrenda egin da:



HERRIA	DATA	TOPAKETA	BERTARATUAK
Bergara	2019/03/04	Landa agentziekin lan egiten duten eragileak <i>Urteaga kalea, 21</i>	7
Itziar	2019/03/06	Landa agentziekin lan egiten duten eragileak <i>Ludotekan (Burugorri)</i>	21
Eibar	2019/03/12	Erretirodunak <i>Untzaga jubilatua</i>	43
Ordizia	2019/03/14	Batxilergoko ikasleak eta irakasleak <i>Oianguren Ikastetxea</i>	54
Donostia	2019/03/15	Enpresa eta Ekonomia, Merkataritza eta Administrazioa ikasten duten Batxilergoko ikasleak eta Goi Mailako ikasleak. <i>Zubiri manteo Ikastetxea</i>	23
Pasaia	2019/03/20	Ikasleak <i>Pasaia Eskola</i>	31
Zumarraga	2019/03/21	Batxilergoko lehen mailako ikasleak <i>UGGLE Batxilergo Eskola</i>	33
Urretxu	2019/03/25	Batxilergoko lehen mailako ikasleak <i>Urretxu Zumarraga</i>	45
Zumaia	2019/03/26	Batxilergoko ikasleak <i>Zumaia BHI Eskola</i>	60
Irun	2019/03/27	Batxilergoko ikasleak <i>Pio Baroja BHI Eskola</i>	115
Tolosa	2019/03/28	Oiartzun landa garapena <i>Tolomendi</i>	13
Donostia	2019/03/29	Batxilergoko ikasleak <i>Zurriola Ikastetxea</i>	26
GUZTIRA			471

Hainbat sektorek, kolektibo sozialek eta ordezkari politikok topaketetan helarazitako ekarpenak **aktan jaso ziren** eta kodifikatu egin ziren. Horrez gain, topaketetara bertaratu zirenei gonbidapena egin zitzaion 2020 Aurrekontu Irekien galdetegia betetzeko.



1.4. ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?

2020 Aurrekontu Irekiak ekimenaren lehen fasea irekita egon da Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztientzat, hilabetez (martxoaren 1etik 31ra).

Aurrekontu Irekien prozesurako planteatutako proposamenak 3 galdera osagarri ditu, bi ataletan banatuta:

→ 1. G. IREKIA: Zeintzuk dira zure proposamenak 2020ko foru aurrekontuetarako? Zer proposatu nahi duzu? Zer hobetu nahiko zenuke?

- Proposamenaren izendapena
- Proposamenaren deskribapen laburra



1.5. ZEIN BERRIKUNTZA DAKAR PARTAIDETZA PROZESU HORREK?

Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasun zeinu diren praktketan sakontzeko, 2020 Aurrekontu Irekien partaidetza ekimena prozesu berritzailea da, honako arrazoi hauengatik:

- Lehen aldiz, **partaidetza prozesuak bi fase** bereizi zituen, herritarren iritzia jasotzen dutenak.
- Bi partaidetza faseetan**, Gipuzkoako Foru Aldundiak **bueltatu** egiten die informazioa herritarrei, eta parte hartzaileekin harremanetan jarriko da proposamenak prozesuan duen egoera azaltzeko.
- Ohiko partaidetza bideak mantendu dira, eta frankeoa helmugan ordaintzea gaineratu da, aurrez aurrekoa: Topaketak, birtuala eta udal erregistroak.
- Partaidetza ekimenaren lehen fasearen iraupena laburtu egin behar izan da, hauteskundeak aurreratu egin direla eta** (2019ko martxoaren 1etik 31ra).
- Topaketak izan dira kolektibo dibertsoenetara iristeko bitarteko onena**, esate baterako, askotariko elkarteetara, ikasleengana, herri txikietako herritarrengana. Guztira, 450 bertaratu izan dira topaketetan.

	AURREKONTU IREKIAK 2017	AURREKONTU IREKIAK 2018	AURREKONTU IREKIAK 2019	AURREKONTU IREKIA 2020. 1ª Fase
POSTONTZIETAN BANATUTAKO GALDETEGI KOPURUA	25.000	310.000	310.000	290.000
PARTE HARTZERAKO KANALAK	3	3	4	4
PROZESUAREN IRAUPENA	44 egun	60 egun	83 egun	31 egun
EGONDAKO HERRIALDEAK HERRIZ HERRI	16	38	54	-
EGONDAKO HERRIALDEAK TOPAKETAK	-	28 topaketa 527 pertsonekin	28 topaketa 852 pertsonekin	12 topaketa 471 pertsonekin
HERRI TXIKIETAKO TOPAKETAK	-	-	8 topaketa 79 ordezkariarekin	-



2. METODOLOGIA

Ikuspegi metodologikoa bat dator datu estatistikoak aztertzeko erabili ohi diren ikerketa teknika kualitatibo eta kuantitatiboekin. Ondorio horietarako, emaitzen nolakotasuna zehazten duten kalkulu estatistikoak aplikatu zaizkio lurraldea ordezkatzeko duen lagin bati.

2.1. PARTAIDETZA MAILAREN ANALISIA

Laginaren tamaina da galdetegia 2020 Aurrekontu Irekiak prozesuan gaitutako bideen bitartez modu egokian bete duen parte hartzaileen kopurua. 16 urtetik gorakoak izan behar dira, eta Gipuzkoan errolatuta egon behar dira. Honako adierazle eta aldagaien arabera xehatuko dira partaidetza datuak:

- Sareko parte hartzaileen kopurua, galdetegia erregistro publikoren batera edo Gipuzkoako Foru Aldundira bidali duten parte hartzaileen kopuruarekin alderatuta, baita Topaketetan aurrez aurre parte hartu dutenekin ere.
- Parte hartu duten emakumeen kopurua, gizon kopuruarekin alderatuta.
- Laginaren batez besteko adina.

Ohar metodologikoa: Emaitza horiek lortuko dira eskuratutako datuak iragaziz (aurrez aurrekoa edo sarekoa). Horrez gain, histograma bat egingo da, adinaren banaketa islatzen duena, eta aurrez aurrekoen banaketa geografikoari erreparatuko zaio.

2.2. EKARPEN IREKIEN ANALISIA

Herritarren ekarpenak kuantifikatu eta kategoriatan sailkatu dira, mapa kualitatibo bat egin ahal izateko, lagin parte hartzaileak egindako ekarpenak jasoko dituen.



2.3. FITXA TEKNIKOA


- **Unibertsoa:** 617.173 (2018/11/15 erroldan, Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak) [318.067 emakumezko eta 299.106 gizon].
- **Laginaren tamaina** 765 pertsona.
- **Metodoa:** Lagin ez probabilitikoa.
- **Errore marjina:** 617.173 pertsonako populazio batentzat, 892 pertsonako lagin batekin \pm % 3,28ko errore marjina lortzen da [konfiantza tarte % 95ekoa da].
- **Informazio bilketa:** Topaketetan egindako ekarpenak, esku orriak bidaltzea, erregistroak eta sarea.
- **Egiteko datak:** 2019ko martxoaren 1etik 31ra.



3. EMAITZAK


3.1. PARTAIDETZAREN EMAITZAK

Guztira, lagina 892 pertsonak osatu zuten



3.1.1. Partaidetza generoaren arabera


Kontuan hartuta partaideek emandako datuak, hurrengo grafikoan ikusten da **gizonen (% 32) eta emakumeen (% 33)** partaidetza orekatua dela oso.





3.1.2. Partaidetza adinaren arabera

Hurrengo histograman ikusi daitekeenez, prozesuan parte hartu dutenen artean, partaidetza handiena izan duen adin tarteak 48-71 urtekoa da, baina egia da 208 pertsonak ez dutela nahikoa datu eman analisisian sartzeko.




3.1.3. Ekarpen kopurua

Kontuan hartuta 2019 hauteskunde urtea dela, eta ikusita zein datatan egin del 2020 Foru Aurrekontuen lehen fasea, guztira, prozesuaren lehen fasean **1.083** ekarpen kodifikatu dira. Ez da gutxieteko moduko kopurua, testuingurua eta denbora aldeko mugak ikusita.



3.1.4. Hautatutako partaidetza bideak

Ekarpen gehien izan dituen partaidetza kanala posta izan da (724), gainerako bideekin alderatuta.






3.2. PARTAIDETZA PROZESUAREN EMAITZAK

Galdera: Zeintzuk dira zure proposamenak 2020ko foru aurrekontuetarako? Zer proposatu nahi duzu? Zer hobetu nahiko zenuke?

Guztira, **2020 Foru Aurrekontuen 1. fasean** herritarrek egindako **1.083 ekarpen** zenbatu dira. Horien bidez, Gipuzkoako herritar parte hartzaileek beren ezinegonak, interesak eta inbertsio proposamenak egin dituzte hurrengo ekitaldirako.


Jasotako ekarpenak kodifikatu eta aztertu ondoren, proposamen gehien jaso duten departamentuak dira **Gizarte Politikak (179)**, **Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa (173)** eta **Ekonomia Sustapena, Landa Ingurua eta Lurralde Oreka (120)**, jarraian ikusi daitekeen moduan.

ESKUMENEN ARABERAKO PROPOSAMENAK





Lehentasuna izan duten gaiak dagokienez, ekarpen gehien jaso duena izan da **egoitzei, eguneko zentroi eta tutoretzapeko pisuei dagokiena (58), hondakinen kudeaketa (52), txirrindularientzako bideen sarea (46), kirola (41) eta politika fiskala eta zergak (35).**






Kontuan hartuta herritarrek helarazitako ekarpenen dibertsitatea, jarraian gehien errepikatu diren ekarpenak eta/edo departamentu bakoitzean errepikatu direnak aztertu dira.

Partaidetza prozesu hau herritarrei bueltatzeko fasean, foru departamentuek banakako erantzuna emango die Gipuzkoako parte hartu duten herritarrek helarazitako proposamen bakoitzari, eta foru erakundearen eskumen egituraren barruan sartzen diren herritarren ekarpenak erakutsiko dira, beste banaketa eta espazio administratibo batzuei dagozkienekin, eta tokiko esparrutik Estatukora doazenekin.




1. DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA (48 EKARPEN)



- 1. Berdintasuna:** Berdintasun plan integrala, txikienekin egindako hezkuntza kanpainak eskoletan, inklusioa eta sexu dibertsitatea, genero irizpidea egiaz aplikatzea, amatasun bajak, indarkeria matxistaren aurkako borroka, soldata arrakala eta abar.
- 2. Zibismoa eta erantzukizuna:** hiriko altzariak eta ingurua zaintzea, kontzientziazio kanpainak eta abar.
- 3. Elkarbizitza eta dibertsitatea:** euskal kulturaren bitartez migratzaileak integratzea, migratzaileen kontrola, dibertsitatearen kohesioa, eta abar.
- 4. Euskara:** euskararen erabilera sustatzea, euskara ikasteko laguntzak eta euskalduntzea, euskara erabiltzearen nahitaezkotasuna administrazio publikoetan.
- 5. Uztartzea:** familiako eta laneko bizitza uztartzeko laguntzak.
- 6. Kudeaketaren gardentasuna:** politikarien zintzotasuna.
- 7. Beste batzuk:** Gizarte Larrialdien Foru Koordinazioko Zerbitzua mantentzea, dagoeneko hasitako obren inbertsioa, aurrekontuen kudeaketa eta abar.




2. KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA (103 EKARPEN)



- Gazteentzako politikak:** gaztetxeak eta gazteentzako espazioak, bizitza ohitura osasungarriararako eta sexu heziketarako kanpainak, atzerriak ikasteko bekak eta abar.
- Kirol ekipamenduak:** egungo ekipamenduak mantentzea eta hobetzea, beste batzuk egokitzea, kiroldegietako tarifak eta abar.
- Proiektu kulturalak:** kultur etheen proposamenak, ekitaldi eta jarduera kulturalak, ekimen kultural zehatzak abian jartzea..
- Kirola sustatzea:** kirola bultzatzea, kirol ekitaldiak eta gutxiengo kirolak sustatzea eta diruz laguntzea, kiroleko garraioan gastatzeko dirulaguntza, Euskal Selektzioaren ofizialtasuna eta abar.
- Kultura sustatzea:** kultura sustatzea, gune kultural berriak sortzea, aurrekontu zuzkidura handitzea eta abar.
- Ondarea babestea:** eraikin historikoak babestea eta ondare kultural eta artistikoari balioa aitortzea, ezagutarazteko.
- Garapenerako lankidetzak:** laguntza humanitarioa behar duten herrialdeentzat.
- Turismoaren kudeaketa:** turismoa kudeatzea leku bakarrean ez kontzentratzeko.
- Beste batzuk:** parkeak estaltzea eta musika taldeentzako laguntza ekonomikoa.




3. GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA (40 EKARPEN)



- Herritarren partaidetza:** herri kontsulta lotesleak egitea, partaidetza prozesuak, herritarrekiko komunikazioa hobetzea eta abar.
- Administrazioak modernizatzea:** produktibotasuna aztertzea eta funtzionarioak profesionalizatzea.
- Gobernu ona:** gardentasuna kudeaketa politikoan.
- Enplegu publikoa:** kontratazioak, enplegu publikoko deialdiak, administrazioaren tamaina eta abar.
- Suteak eta salbamendua:** boluntarioak suak itzaltzen laguntzeko eta suteen aurkako harguneak jartzea.
- Beste batzuk:** gizarte hezitzaile gehiago eta hauteskunde propaganda kentzea.



4. EKONOMIA SUSTAPENA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA (120 EKARPEN)



1. Abeltzaintza eta Landa Garapena: laguntzak landa inguruko higiezinak eta lursailak berreskuratzeko, ustiategi txikientzako laguntzak, baserrietako belaunaldi ordezkapena, landa bideak mantentzeko lanak, tokiko produktua sustatzea eta bultzatzea eta abar.

2. Mendiak eta habitaten kudeaketa: mendiak garbitzea eta mantentzea (orokorrean eta zehazki), bide naturalak eta bide berdeak egokitzea, gaitzak jotako flora birlandatzea, ehiza jasangarriaren kudeaketa eta abar.

3. Enplegua sortzea: enplegua sortzea gazteentzat eta 50 urtetik gorakoentzat.

4. Teknologia berriak: zuntz optikoa instalatzea eta WiFi estaldura lurraldeko landa guneetan.

5. Berrikuntza, I+G+b: ekintzailtza eta berrikuntza, osasun alorreko ikerkuntza, zentro teknologiko eta ikerkuntzakoentzako laguntza eta abar.



6. Lanaren kalitatea: Lan baldintzak eta soldatak hobetzea.

7. Saltoki eta enpresa txikientzako laguntzak: laguntzak negozioak berritzeko, tokiko saltokiak zaintzea komunitateko lan sortzaile moduan, auzoko kontsumoa berraktibatzeke kanpainak, egungo araudia aldatzea lokal zaharrak eraberritzeko eta abar.

8. Gune industrialak eraberritzea: laguntzak gune industrial zaharkituak eta/edo abandonatuak birgaitzeko, eraldaketa industrialak, lurraldeko gune industrialetara lekualdatzen diren enpresentzako laguntza eta abantailak eta abar.

6. Ekintzailtza: ekintzailtzarako finantzazioa, gazteen ekintzailtzaren aldeko apustua egitea, belaunaldi aldaketa eta abar.


7. Egiten ari diren proiektuak: Zaldibiako transformazio gunea desblokeatzea, Oartzungo proiektua zabaltzea, kontsumo kooperatibentzako laguntzak eta abar.

8. Monpas: pasabidea eta sarbide bakarra bidean eraikitzea.

9. Beste batzuk: herri txikiekin koordinatuta lan egitea proiektuak hobeto koordinatzeko, Deban trenbidea lur azpian sartzeko eta abar.



5. MUGIKORTASUN ETA LURRALDE ANTOLAKETAREN DEPARTAMENTUA (173 EKARPEN)



Txirrindularientzako bideen sarea: zati berriak sortzea, daudenak lotzea, mantentze lanak, garbiketa eta kontserbazioa, probintzien arteko loturak, seinaleztapena eta abar.

2. Lurraldebusen lineak eta ordutegiak: Lurraldebusen lineak aldatzea, linea eta ibilbide berriak, herri txikietako zerbitzua, maiztasuna areagotzea, gaueko ordutegiak handitzea, asteburuetan eta jaiegunetan eta abar.


3. Trena: trenbideak lurperatzea, trenaren maiztasuna areagotzea, garraio bideen arteko kudeaketa hobetzea eta abar.



- 4. Lurraldebusen flota:** Markesina berriak jartzea eta egungoak mantentzea, flota berritzea, emakumeentzako geraleku seguruak, irisgarritasuna, jarlekuak erabiltzeko lehenetasuna duten pertsonen inguruan indarrean dagoen araudia betetzeko neurriak eta abar.
- 5. Mugi txartela:** garraio publikoan orokorrean eta kolektibo jakinentzat deskontuak jartzea eta merkatzea, tarifa finkoak ezartzea, urteko bonoa, beste probintzia eta garraio bide batzuetan erabili ahal izatea, garraio txartelak bateratzea eta abar.
- 6. Pasaiake badiak:** badia, portua eta itsas pasealekua leheneratzeko neurriak eta gunearen garapena sustatzekoak.
- 7. Bide azpiegitura berriak:** zirkulazioa herri guneeetatik desbideratuko duten eta herriak lotuko dituzten errepide berriak eraikitzea.
- 8. Elektromugikortasuna:** ibilgailu elektronikoak sustatzea eta bultzatzea, mugikortasun publiko jasagarria eta kargatzeko zerbitzuguneak jartzea.
- 9. Aparkalekuak:** doako aparkalekuak herriaren sarreran eta bizikletentzako aparkaleku gehiago eta hobeak jartzea.
- 10. Etxebizitza:** eskuragarri dauden etxebizitzaren kopurua egiaz handitzea eta alokairuan dagoen etxebizitza publikoa sustatzea.
- 11. Narriatutako gunek eraberritzea:** oso egoera txarrean dauden higiezinak dituzten gunek birgaitzea.
- 12. Hondarribiko aireportua:** aireportua handitzea.
- 13. Beste batzuk:** Arrasateko HAPO eta Araxeseko paper fabrikaren plan berezia.



6. OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA (57 EKARPEN)



1. Politika fiskala / Zergak: zerga jakinak jaitea (OHZ, oinarrizko produktuak, PFEZ eta abar), jaiotze tasa sustatuko duten pizgarri fiskalak, adineko pertsonak, gazteak, etxebizitza erostekoak, ibilgailu elektrikoak, unibertsitate tasak, zergen inguruko pedagogia kanpainak, Zergabidea sistema hobetzea, mugen digitalizazio programa bideratzeko neurri eraginkorrak eta abar.


2. Iruzuraren aurkako borroka: ikuskapenak areagotzea iruzur fiskalaren aurkako borrokaren mesedetan, saltokietan faktura igortzeko nahitaezkotasuna, profesional autonomoek eskainitako lanen egiazko adierazpena eta abar.

3. Higiezinak birgaitzeko laguntzak: dirulaguntzak eta laguntzak higiezinak eraberritzeko (irisgarritasuna eta abar).

4. Beste batzuk: zorra amortizatzea, aurrekontu kontrola, banku publiko bat sortzea eta abar.




7. BIDE AZPIEGITUREN DEPARTAMENTUA (89 EKARPEN)



- 1. Errepideak mantentzea:** errepideko segurtasun neurriak hobetzea, errepideak orokorrean egokitzea, garbitzea eta mantentzea eta eskari zehatzak eta abar.
- 2. Errepide eta azpiegitura berriak:** bide konexio berriak sortzea, errepide berriak, saihesbideak, bide konexioak hobetzea, azpiegitura berriak, zatiak lurperatzea eta abar.
- 3. Pantaila akustikoak:** Panel akustikoak instalatzea trafikoak eragindako zarataren aurka, kutsadura akustikoaren aurkako borroka eta abar.
- 4. Autobideak:** bidesarien kostua murriztea eta/edo autopistak liberalizatzea, seinaleztapena eta segurtasuna eta abar.
- 5. Karlos I:** Karlos I.ko bidearen inguruko iritzi kontrajarriak:
- 6. Beste batzuk:** Isabel II.aren etorbidea oinezkoentzako jartzea, argiztapena hobetzea, semaforo gehiago jartzea eta abar.



8. GIZARTE POLITIKA DEPARTAMENTUA (179 EKARPEN)



Egoitzak, eguneko zentroak eta tutoretzapeko pisuak: egoitza aukerak, egoitzetan plaza gehiago, erabiltzaileentzako zerbitzuak zabaltzea, egoitzen hitzarmena onartzea, egoitzetako plazak areagotzea, egoitzak ez dauden herrietan, langile kalifikatua hobetzea eta zabaltzea egoitzetan, egoitzetan jarduera gehiago eskaintzea, jardueren prezioa doitzea, ratioa hobetzea eta abar.

2. Adinekoak: adinekoen arreta eta zaintza, etxez etxeko laguntza, aisiarako eta sozializatzeko espazioak, pentsioak eta gutxieneko oinarritzko errentak ezartzea, bakardadea arintzeko terapia alternatiboak, erruki komunitateak eta abar.

3. Aniztasun funtzionala / Mendekotasuna: mendekotasun laguntzak hobetzea, Mendekotasunari buruzko Lege berria, aniztasuna duten pertsonen enplegarritasuna, burokrazia azkartzea, arkitektura oztopoak kentzea eta abar.

4. Laguntza sozialen kudeaketa: laguntzen kontrola, laguntza sozialak eskuratzeko betekizunak eta abar.




5. Esklusio soziala: esklusio sozialeko arriskuan dauden pertsonentzako laguntzak, baliabiderik gabeko laguntzak, etxegabeak, eztabaidarako mahaia, etorkinentzako laguntzak eta abar.

6. Beste batzuk: zeliakoentzako laguntzak, migrazioa arautzea, laguntza sozialak hobetzea, guardiako botikak, etxebizitzako gastu finkoen tarifak murriztea (ura, argindarra, zaborrak eta abar).



9. INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK (96 EKARPEN)



1. Hondakinen tratamendua: hondakinen kudeaketa eta tratamendua, erraustegiaren aurkako eta aldeko iritziak, erraustearen alternatibak eta egungo zaborrak biltzeko sistemarenak, edukiontzien kudeaketa eta garbiketa, ekonomia zirkularra, bosgarren edukiontzia erabilera hobetzea, saneamenduak eta abar.

2. Ibaiak garbitzea eta egokitzea: dragatzea, bideratzea, mantentzea eta lurraldeko ibaietarako proposamen zehatz eta orokorrak, kontserbazioa eta garbiketa hobetzeko.

3. Klima aldaketa: kontzientziazio kanpainak, klima aldaketa aztertzeko zentro bat sortzea, ikerketa eta abar.

4. Jasangarritasuna: hainbat jarduketa ildotan jasangarritasuna sustatzen duten proposamenak.



5. **Ingurumenaren babesa:** inguru naturalak garbitzea, itsasoan plastikoa kentzeko jarduketak, ingurumena babestera bideratutako jarduketa ildoak eta abar.
6. **Energia berriztagarriak:** energia garbiak eta berriztagarriak ekoiztearen aldeko proposamenak: eolikoak, hidraulikoak eta abar.
7. **Airearen kalitatea:** abian jartzea Lezoko airearen kalitatea kontrolatzeko estazioa, airearen kalitatearen datuak argitaratzea eta abar.
8. **Uraren hornidura:** Uraren hornidura hobetzea lurraldeko etxe guztietara, eta uraren kudeaketa hobetzea.
9. **Beste batzuk:** Errenteriako paper fabrika mugitzea eta Uztabiltzen proiektua.



10. FORU ESKUMENENAK EZ DIREN EKARPENAK (178 EKARPEN)

Herritarrek egindako ekarpenetatik (1.083), **178 ez dira foru eskumeneak**. Alegia, beste erakunde publiko batzuentzakoak dira, esaterako, udalentsat, mankomunitateentsat, Eusko Jaurlaritzarentzat, Estatuko Gobernuarentzat eta/edo Europar Batasunarentzat.

11. ONARTU GABEKO EKARPENAK (0 EKARPEN)

Onartu ez diren ekarpenak izan dira diskurtso mingarria eta baztertzailera zutenak.



4. ONDORIOAK AURREKONTU IREKIAK 2020 BESTE BEHIN, GIPIZKOAKO HERRITARREK LEHENTASUNA EMAN DIETE GIZARTE POLITIKEI ETA LURRALDEKO MUGIKORTASUNARI.

Aurreko ekitaldietan aplikatutako foru partaidetza prozesuen argudioen ildo berari jarraituz, lortutako emaitzetan nabarmena da zein garrantzi duen kontuan hartzeak adinekoentzako egoitza aukerak, eguneko zentroak eta adinekoentzako kalitatezko arreta ematek eratorritako beharrak, baita txirindularientzako bide sarea handitzen jarraitzeak, Lurraldebusen lineak, ordutegiak eta flota berritzeak eta trenak.

Aurrekontu Irekien prozesu honen barruan, garbi ikusten da herritar partaideek interes handia dutela lehentasuna ematen jarraitzeko gizarte politikei eta lurraldeko mugikortasunaren inguruko garapen jarduketeki. Bi departamentuek, guztira, jasotako eskaeren % 32,5 biltzen dituzte.

Bereziki aipatu da 2020ko foru aurrekontuetan adinekoentzako egoitzen hobekuntzarako jarduketak sartzea, baita eguneko zentroak hobetzeak eta adinekoen, aniztasun funtzionala duten eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza hobetzean eragina izango duten politikak ere. Laburtzeko, gizarteko ahulenen bizi kalitatea hobetzen lagunduko duten politikak.

Bigarrenik, herritarrek nabarmendu dute zein garrantzi duen txirindularientzako bide sarea hedatzeak, dauden zatiak batuz, horiek ez dituzten lekuetara zabalduz eta egungo zatiak mantenduz. Horrez gain, ekarpen ugari erreferentzia egiten diote Lurraldebusen lineak eta ordutegiak handitzeari, hori beharrezkoa baita herritarren eskaria asetzeko eta garraio publikoan oinarritutako lurraldeko mugikortasun eredu baten alde lan egiteko.

Hirugarren eta laugarren lekuan daude, hurrenez hurren, Ekonomia Sustapena, Landa Inguru eta Lurralde Oreka Departamentura eta Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko Departamentura bideratutakoak. Guztira, % 20,6 dituzte.



Erreferentzia egin zaie, halaber, beste zenbait gairi, adibidez, abeltzaintzako ustategientzako laguntzen, ustategiak modernizatzearen eta higiezinak birgaitzeko garrantziari, horrek belaunaldi aldaketa errazteko. Izan ere, arriskuan dago, egun egoera zailean baitaude ustategi txikiak, administrazioek eskainitako bitarteko eta laguntzarik gabe ezin baitute aurrera egin. Agertu dira ere mendien garbitasun egoeraren eta habitaten kudeaketaren kezka, gizarteko gazteentzako eta helduenentzako enplegua sortzea eta teknologia berriak aplikatzearen garrantzia, lan esparruko kalitatea eta saltoki txikientzako laguntzak, tokiko ekonomiaren arima baitira.

Gazteentzako espazioak sortzearen inguruko ekarpen ugari ere jaso dira (gaztetxeak, kultur etxeak), baita egungo kirol instalazioak hobetzearen garrantziari buruzkoak, kirola orokorrean eta gutxiengo kirolak bereziki sustatzearen ingurukoak eta adin guztientzako adierazpen artistikoen inguruko jarduera kulturalak sustatzeari buruzkoak.

2020 Aurrekontu Irekien partaidetza prozesuko proposamenen bolumena txikiagoa izan bada ere aurreko ekitaldian lortutakoarekin alderatuta, edukiak oso antzekoak dira. Aurten, proportzioan jasotako ekarpenetan areagotu direlako garrantzi handiena hartu duten departamentuak dira Gizarte Politika; Ekonomia Sustapena; Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola; eta Ogasuna eta Finantzak. Ikusgarritasun handiena hartu duten zuzendaritzak dira Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arreta; Gazteria eta Kirola; Ekonomia Sustapena; eta Politika Fiskala eta Finantzak.

Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa; Ingurumena eta Obra Hidraulikoak; Bide Azpiegiturak eta Diputatu Nagusia zian dira ekarpen gutxiago jaso dituzten departamentuak.

Bere aldetik Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuak mantendu egin du jasotako ekarpenen kopurua.

Horrez gain, Aurrekontu Irekiak ekimen parte hartzailearen bitartez, foru aurrekontuetan egikaritutako partidetan integratu dira partaidetza prozesu honetan lurraldeko biztanleek helarazitako ekarpenak eta iradokizunak.



ABIAN DA 1. FASEAREN BUELSTATZE PROZESUA

Aldundiko teknikariek aztertuko dute jasotako proposamenek betetzen dituztela baldintza kualitatibo eta kuantitatiboak.

Herritarrek eta gizarte zibilak 2020 Aurrekontu Irekien 1. fase honetan helarazitako ekarpenak kodifikatu egin dira, eta dagozkien foru departamentuetara bidali dira. Horren ondoren, foru departamentuek eta zuzendaritzek aztertu egingo dituzte horien bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, eta jasangarritasun finantzarioa, eta erantzun tipo bat bidaliko zaio parte hartzaile bakoitzari. Bertan azalduko da egungo egoera, ekimen bakoitzaren analisi prozesuaren trazabilitatea eta/edo gero proiektu bihurtzeko aukera edo dauden beste proiektuetan sartzekoa.

Teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak direla frogatutako proposamen guztiak joko eta (bir)formulatuko dira aurrekontu irekien prozesuan herritarrek aukeratu ditzaketen proiektu moduan.



5. GIPUZKOAREKIN DUGUN KONPROMISOA

5/2018 Foru Arauaren, azaroaren 12koaren, Herritarren Partaidetzari buruzkoaren, 26. artikuluan, aurrekontuak egitean herritarren partaidetza prozesuak arautzen dituenean, ezarritakoari jarraituz, lortutako emaitzen kontu emango da, eta konpromiso batzuk onartuko dira, Aldundiak hartuko dituenak herritarren eskariei erantzuteko.

Hurrengo urratsak izango dira prozesuaren emaitzak eta mugarriak komunikatzea hainbat bidetatik, bai parte hartu duten herritarrei bai Gipuzkoako herritar guztiei, balioan jarritz egindako partaidetza ariketa eta herritarrek ekimen Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendutako entzute aktiboko ekimen honen bidez jasotako ekarpenak.

Horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du partaidetza prozesuaren 2 faseen emaitzak komunikatzeko eta jasotako herritarren eskakizunak aztertzeko eta horiei erantzuteko. Horrez gain, erakundeak ere konpromisoa hartzen du egiaz kontu emateko 2020 Aurrekontu Irekien ekimenaren esparruan gaitutako partaidetza prozesutik eratorritako lehentasunezko proiektuen eta jarduketa politiken egikaritze mailaren inguruan.

Herritarrei kontu emango zaie eta konpromisoak itzuliko dira behin kodifikatu direnean eta aztertu direnean partaidetza prozesu honetan departamentuetara helarazitako herritarren ekarpen guztiak. Zehazki, kontrastatu egingo da ekarpen guztiek nola egiten duten bat, 2020ko aurrekontuak behin betiko onartzeko, eta helarazitako ekarpen bakoitzerako hartutako konpromisoak bueltatzeko faseari heltzeko.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
El futuro de Gipuzkoa